

## IZADI GURASOEKIN ETXERA!

Izadi, hori da zerrenda luze baten azken izena. Izadi da, orain arte, Espainiako kartzelan dagoen azken umea, eta urtarrilaren 23an, 3 urte beteta, gurasoengandik banatuko dutena. Espainiako kartzela ezberdinetan egon ondoren, azkenean EHra etortzeko garaia du Izadik ere.

Egindako lanaren ondoren eta gizarte zibilaren zein eragile politiko, sindikal eta sozialen bultzadari esker, Izadik jada ez ditu ehunka kilometro egin beharko gurasoak ikusteko. Pozez hartu genuen gurasoak EHra ekartzeko erabakia, eta pozez ere aitarekin egoteko izango duen aukera. Baina, dena ez da nahiko genukeen bezalakoa, eta, tamalez, amarekin egoteko oraindik denbora itxaron beharko du.

Izadi, orain, beste 80 haurren kasuan bezala, beren gurasoei ezartzen zaizkien salbuespenezko neurriak jasan beharko ditu. Espero dugu datozen hilabeteetan salbuespen-neurri horiek aldatzen joatea eta eragiten duten sufrikario guzti horrekin amaitzea.

Espero dugu lehen bai lehen Izadik Algortan gurasoak besarkatu ahal izatea, eta legeak dioen bidea oztoporik gabe ibili ahal izatea.

100 egun pasa dira Jaurlaritzak espetxe-eskumenak dituenetik. Sarek espero du hartuko dituzten erabakiek etorkizun hobea baterako bide ematea, eta, horretarako, salbuespen-neurriak atzean uztea eta preso guztiei lege arrunta aplikatzea. Eta kasu honetan ere, umeen eskubideak kontuan hartzea, Euskal Herrian familia-moduluen arloan dagoen gabeziari aurre egiteko bideak zabalduta. Finean, haurren eskubideez eta preso diren pertsonen guraso izateko eta familian bizitzeko duten eskubideaz ari baikara.

---

Izadi, ese es el último nombre de una larga lista. Izadi es, hasta ahora, la última niña en cárceles españolas, y el 23 de enero, al cumplir 3 años, será separada de su padre y de su madre. Después de pasar por diversas cárceles españolas, a Izadi le ha llegado el momento de venir a EH.

Después del trabajo realizado, y gracias al impulso de la sociedad civil y de los agentes políticos, sindicales y sociales, Izadi ya no tendrá que recorrer cientos de kilómetros para visitar a su padre y a su madre. Acogimos con alegría la decisión de trasladar a EH a su madre y su padre, así como la posibilidad de estar con su padre. Pero todo no es como quisiéramos, y, desgraciadamente, todavía tendrá que esperar para estar con su madre.

Izadi, ahora, al igual que 80 niñas y niños más, sufrirá las medidas de excepción aplicadas a su madre y a su padre. Esperamos que esas medidas de excepción vayan cambiando a lo largo de los próximos meses, y que se ponga fina al sufrimiento que generan.

Esperamos que Izadi pueda abrazar cuanto antes a su madre y a su padre en Algorta, y que tenga la posibilidad de recorrer sin obstáculos el camino establecido por la ley.

Han pasado 100 días desde que el Gobierno Vasco asumió las competencias penitenciarias. En Sare esperamos que las decisiones que adopten posibiliten un futuro mejor, dejando atrás las medidas de excepción y aplicando a todas las presas y a todos los presos la legislación ordinaria. Y, en este caso, teniendo en cuenta los derechos de la infancia, para lo que se deben tomar medidas para solucionar el problema de los módulos penitenciarios en EH. Porque, en definitiva, estamos hablando de los derechos de niñas y niños y del derecho de las personas presas a ser padres y madres y a vivir en familia.



SARE

